

Hil laudamena

Gauzak inork baino lehenago egiteko zure joerak bildu gaitu gaur hona, eta horrek ekarri dit jendaurrean zutaz aritzeko ardura bilatu gabea. Barkatu beharko didazu, zaudenean ere, hitzon traketsa, zu baitzinen gure artean hitz kontuetan trebeena. Zoritzarrez ez zaitugu zu hemen, gure arteko baten hil laudamena eginez, eta gutako bat hor, zu zauden tokian, zauden tokian zaudela ere. Le-poa eginen nuke, zu hemen egotera, ni nagoen leku eta ataka gaiztoan, ederki arituko zinela zuka egin beharrik gabe, ez hitanoa polito zenerabilelako, eta are herabilelako ere, hitanoa polito zenerabilenez, eta are herabilenez ere, baizik eta jende hilari buruzko prentsa-ko testuetan batez ere, baina baita gaur bezalako hileta zibiletan ere, bigarren pertsona gramatikala irmoki gaitzesten zenuelako.

Behin baino gehiagotan (gogoan dut behin, Erronkariko zure bordan, gonbi-datu gintuzunean, hain ongi ateratzen zitzaizun –nik erakutsitako errezetari jarraituz– *paella del senyoret* prestatu eta bapo bazkaltzera) irri egin diezu (arroza egosten zen bitartean egunkariak elkarren ondoan irakurtzen genituela), horrela arituta, gertutasuna erakutsi eta adiskidantza nabarmendurik, hildakoari buruzko informazio objektibo eta neurritsua, bere testuinguru historikoan kokatuko lukeen atzera-begirakoa, arreta mediatikoko une gorenean –norberaren heriotzarenean, hain zuzen– hain eskergarria litzatekeena, bertan behera utzirik, konpai pasadizoen bidez ihes egiten duten ustezko adiskideei, adiskide azken finean txarrei. Niri ere eginen didazu irri, nonahi zaudela ere, testu hau, gainbegiratzeko nori eman ez dudanez, bere horretan prentsara bidali eta zuk irakurtzen duzunean, dagoeneko Bidankozeko bordarik gabe, jauntxoaren paellarik



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

gabe eta are begirik gabe ere. Zure balizko irri karkailak, oraintxe entzuteko irudipena dudana [entzuleria aldekoa sumatuz gero, saiatu haren irri karkaila imitaezina antzeratzen] kontsolatzen nau baliabideen eskasiaz.

Beste kontsola-bide batez ohartarazi naute zutaz hitz egitera gerturatu zaizkidan zure ustezko etsai askok, zure benetako lagun harridurarako, egunkarietan eta sare sozialetan laudoriozko mezuak barra-barra idatzi dituzten horiek: gehien maite zenuena egiten hil zara: zu zeu izaten. Hori da gauza bat, gehien maite dutena egiten hiltzearena, oso jende gutxik lortzen duena. Orain bakarrik mendizaleak (elur jauzi baten azpian harrapatuta edo gailurretik hurbil izoztuta hiltzen direnean) edo txirrindulariak (babes tarte gorde ez duen ibilgailu batek aurrean eramanda) datozkit gogora zorroneko jende horren artean. Nik neuk, esaterako, susmoa dut, gehien maite dudana egiten (bizitzen, alegia) bizi banaiz ere, gutxien maite dudana egiten hilko naizela egunen batean, burua galduta eta hiltzorian.

Bukatzen joateko, ez bainaiz gaur hitza hartu beharreko bakarra, zure izenean eskatu nahi diet hurrengo hizlariei ez dezatela “goian bego” esapidea erabil, dagoeneko baten bati erabiltzen aditu diodan moduan, ez baitzinen euskaldun fededuna (eta seguruenik hala erabili edo erabiltzeko asmoa duzenok ere ez). Horren ordez, “gugan bego” irudimentsuagoa proposatzen dizut, zuk, zauden tokian zaudela, hala nahiago izanen duzula-koan. Izan ere, ederki irudika zaitzaket formula horri “eta ni Begorengan” batekin erantzuten.

Besterik ez, besarkada handi bat hor atzean eserita dagoen Begori, zure emazte Carlotari eta maite izan zaituzteten guztioi ere. ■